

2026ko apirila



## Aditzoinen forma

Aditzoina partizipio burututik bereizten da, aspektu-markarik ez baitu hartzen: *eros* aditzoina / *erosi* partizipio burutua (zehazki, aditzoina eros + aspektu burutua -i). Bereizketa horrek aditzaren barne-egiturari eta denboraren nahiz aspektuaren adierazpenari lotutako funtzioak argitzen ditu. Izan ere, aditzoina oinarrizko forma neutroagoa da, eta ez du ekintzaren burutzapena markatzen. Partizipio burutuak, aldiz, ekintza amaitutzat ematen du, eta, hortaz, aspektuaren ikuspegitik informazio zehatzagoa eskaintzen du. Horregatik, komenigarria da aditzoinen formak arretaz aztertzea, bereziki egitura sintaktiko eta semantiko egokiak bermatzeko.

Pasa gaitezen, bada, Euskaltzaindiak jasota duen araua urratsez urrats azaltzera.

### KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT GOMENDIO:

- **Adi!** *Erran* edo *joan* bezalako aditzek **forma bera** atxikitzen dute, izan aditzoin ala partizipio burutu. Hona hemen zenbait adibide:

PARTIZIPIO BURUTUA	ADITZOINA
etorri	<b>etor</b>
hartu	<b>har</b>
erran	<b>erran</b>
joan	<b>joan</b>
ibili	<b>ibil</b>
ikusi	<b>ikus</b>

- Bukaeran *-tu / -du* duten aditz batzuek *-t* atxikitzen dute beren aditzoian.

PARTIZIPIO BURUTUA	ADITZOINA
ausartu	<b>ausart</b>
ezagutu	<b>ezagut</b>
landu	<b>lant</b>
ohartu	<b>ohart</b>

- Partizipioak txistukari bat (*s, z*) duelarik *-turen* aitzinean, doakion aditzoia afrikatuarekin (*ts, tz*) agertzen da.

PARTIZIPIO BURUTUA	ADITZOINA
hustu	<b>huts</b>
aberastu	<b>aberats</b>
piztu	<b>pitz</b>
moztu	<b>motz</b>

### IDAZKERA ZUZENAK

- ausart (ausartu), berant (berandu), bat (batu), ezagut (ezagutu), hant (hantu), hert (hertu), laket (laketu), lant (landu), lot (lotu), ohart (ohartu), oroit (oroitu)
- ezkon (ezkondu), lagun (lagundu), neur (neurtu)
- aberats (aberastu), huts (hustu), pitz (piztu), motz (moztu)
- ikas (ikasi), etor (etorri), har (hartu)
- hunki, jalgi, bizi, eraiki

### IDAZKERA OKERRAK

- \*ausar zaitez, \*ohar zaitezte, \*hust ezazu \*jalg hadi
- \*ezkont, \*lagunt, \*neurt



## Ohiko erdarakadak

✗ **Salda dago.**



✓ **Badago salda / Bada salda (ere).**

✗ **Ogia dugu etxean.**



✓ **Badugu ogia etxean.**

✗ **Denbora dugu oraindik.**



✓ **Badugu denbora oraindik.**



### **\*salda dago**

Euskaltzaindiaren arabera, adizki trinkoen kasuan, **ba-**aurrizkia ezarri beharra dago galdegaia baiezkotasuna dela adierazteko. Horregatik, modu hauek dira zuzenak: **badago, badugu** edo **bada**.



## Egin kontu!

### **EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?**

Zuen laguntza behar dugu Egin kontu! atala elikatzeke. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!



**BIZILAGUNAK EZ EZIK ≠ EGOILIARRAK IZAN EZIK**

**Zain dezagun euskara!**